

EUSKARALDIAREN ERAGINA NEURTUKO DUGU

Euskaraldiak herritarren hizkuntza-ohituretan duen eragina neurtzeko ikerketa bat dago martxan.

Euskaraldian izena emandako pertsonen datu batzuk behar dira horretarako. E-posta bidez jasoko dituzun **3 galdetegi betetzea eskertuko genizuke**. Galdetegi laburrak (10 minutu) eta errazak izango dira.

1

Euskaraldia baino lehen

2

Euskaraldia amaitu berrian

3

2019ko martxoan

Garrantzitsua da Euskaraldia bezalako ekimen berritzaile batek nolako eragina duen ahalik eta modu zehatz eta zorrotzenezan ezagutzea. Horregatik, **komenigarria da parte-hartzaile guztiok galdetegiak bete eta ikerketari gure ekarpena egitea.**

2019an argitaratuko dira ikerketaren emaitzak eta orduan ezagutuko dugu ekimenaren eraginaren neurria.

Mila esker parte hartzeagatik!



www.euskaraldia.eus



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



#ahobizi
izango naiz

Parte-hartzaileentzako aholkuak

Ahobizi izatea erabaki duzu. 11 egunetan euskaraz egingo diezu euskara ulertzen duten guztiei. Ezezagunei, berriz, lehen hitzak euskaraz egingo dizkiezu eta euskara ulertzen badute, hurrengoak ere bai.



Ez dago ezinezkorik! Ohiturak aldatzea ez da erraza, baina posible da baldin eta solaskideak ados jartzen bagara. Aldaketa taldean egingo dugu, ez zara bakarrik egongo.



Ariketa batean parte hartuko duzu, beste milaka lagunekin batera. Euskaraldiak iraungo dituen 11 egunetan, ahobizi zarela adierazteko bi tresna izango dituzu:

- a) Ikurra: 11 egunetan agerian eraman txapa, eta ikurra sare sozialetan; ariketa egiten lagunduko dizue zuri eta ingurukoei.
- b) Hitza: Lehen hitza beti euskaraz egin.



Aztertu zure hizkuntza ohiturak: norekin, zertarako eta non erabiltzen duzun euskara, eta gehiago egiteko aukerak. Lehen hitza beti euskaraz egin, eutsi eta zabaldu erabilerarako bide berriak.



Ariketa honetan egoera ezberdinak topatuko dituzu: lorpenak eta arrakastak batzuetan, zailtasunak besteetan. Ez etsi! Saiatzea merezi du. Prestatu zeure burua, egoera horietan euskarari eutsiz, eroso sentitzeko.



Ezezagunei buruzko usteek gure hizkuntza hautua baldintzatzen dute; pentsatu nola gainditu aurreiritziak eta eutsi erabakiari! Baietz hamaika egunetan uste baino jende gehiagorekin egin euskaraz!



Azaldu ingurukoei zer egingo duzun, garrantzitsua da erabaki hau hartzeko egin duzun gogoeta. Lagun, lankide, senide eta ezagunekin partekatzea lagungarria izango da.



Adostu ariketa zure ingurukoekin. Gero eta pertsona hurbilagoak izan (senideak, lagunak...), orduan eta zailago hizkuntza ohiturak aldatzea eta inertziak gainditzea, baina aldaketak eragin handiagoa du. Gonbidatu gertukoak ariketan parte hartzera.



Baliatu gainontzeko ahobizi eta belarriprestekin izango dituzun topaketa eta elkarguneak esperientziak trukatzeko. Jaso bizipenak (arrakastak eta zailtasunak) koaderno batean eta partekatu gainontzekoekin.



Tarteka, elkarrizketa elebidunak sor daitezke solaskideak erdaraz egiten badizu. Eutsi euskarari, elkarrizketa euskarara ekartzeko aukera duzu.



Zure portaera ulertzen edo onartzen ez duen norbait egon daiteke; normaltasunez jokatu, eroso sentitu zaitez. Zure aukera da, ez da bestelako azalpenik behar.



Euskarari eusteko lau estrategia gogoan hartu: **ekin** (lehen hitza zeuk eta beti euskaraz), **adierazi** (euskarari eutsiko diozula), **egiaztatu** (solaskideak ulertu dizula), **esan** (beste modu batean, solaskideak ulertzeko zailtasuna duenean).